




**NAHIKO! PROGRAMA 2019-2021
HEZKIDETZARI BURUZKO I JARDUNALDI OROKORRA**

**"Hezkidetza: eskolaren behaketa, sexismo-zantzuen
desberdintasunen identifikazioa eta parekidetasunerako
aldaketak"**

Egilea: Luixa Reizabal Arruabarrena

Bilbo, 2019ko Urriak 8



Portugaleteko *Nuestra Sra. Del Carmen* ikastetxearen web gunetik hartutako irudia
(<http://nscarmenportugalete.com/ongi-etorri-ikasturte-berrira-tx/>)

Egun on, neska-mutilak!!!

Mirentxu Artola andereñoa naiz, aurten izango duzuen tutorea.

Zer moduz pasa duzue uda?

Ikusten dudanez, primeran. Izan ere, asko hazi zarete.

Mutilek gorpuzkera indartsua garatu duzue, bai horixe!! Nabaritzen da, bai, asko ibili zaretela futbolean!!

Eta neskak!! Aurreko ikasturtean baino askoz ere ederrago ikusten zaituztet!!! Gainera, morena-morena zaudete!!!

Ederki, bada!!

Gaur ikasturtearen lehen eguna dugu eta, hasteko, bakoitzari tokia esleituko diot. Ea: Miren eta Ane hemen; Adur eta Jon, hemen; Izarne eta Alaitz; Asier eta Andoni... Gogoan izan ezin zaretela tokiz aldatu nire baimenik gabe.

Ederki! Orain, aurten izango ditugun ikasgaien zerrenda aurkeztuko dizuet.

IKASGAIEN ZERREDA

- Gaztelania (4 ordu)
- Matematika (4 ordu)
- Ingurune natural eta sozialaren ezaguera (4 ordu)
- Ingelesa (4 ordu)
- Euskara (3 ordu)
- Gorputz Hezkuntza (2)
- Arte plastikoak (2)
- Musika (1)
- Tutoretza (1)

Tutorea izateaz gainera, *Ingurunearen ezaguera* ikasgaiaren irakaslea izango nauzue eta gaiari buruzko eskoletan, besteak beste, bi sexuetako giza gorputzaz hitz egingo dizuet, bai eta gizon edo emakume izateak ekartzen duenaz ere.

GIZA GORPUTZA

Historiari dagokionez, historiaurretik hasi eta aro garaikidera gertatutakoak aztertuko ditugu. Besteak beste, Espainiako inperioaz (1492-1899), Espainiako gerra zibilaz eta lehen eta bigarren mundu gerrez hitz egingo dizuet. Tarte egingo diogu ere, noski, gizona ilargira iritsi zeneko uneari.

Denboran zehar egingo dugun bidaian, hainbat pertsonaia historikok egindako ekarpenak deskribatuko dizkizuet. Besteak beste, Kristobal Colon, Franz Ferdinand Austriakoa, Pablo Picasso eta, Euskal Herrira etorrita, Juan Sebastian Elkano, Iñigo Loiolakoa eta “gure” Pablo Gorosabel handia (1803-1868).

Eta pertsonaia historikoz ari garela, zenbaiten argazkiak ekarri ditut ikasgelan jartzeko.

Ea: Mikel, Adur eta Jon: mugitu mahaiak argazkiak jarri ahal izateko. Ane, Alazne eta Miren: jarri argazkiak, neskak dekorazio kontuetan hobeak zarete eta. Izarne eta Luixa: zuek gero zikindutakoa garbituko duzue.

Ikasgaiaren ebaluazioari dagokionez, kontrolak egingo ditugu ikasturtean zehar, bai eta ariketak ere.

Eta orain, ikasturteko 1. ariketa egingo dugu, zuen irakurtzeko gaitasunak ebaluatzeko baliagarri izango zaidana. Hain zuzen ere, Kristoren aurreko 250. urtean kokatzen den istorioa irakurri eta komentatuko dugu.

“Garai batean, Txinako enperadore izateko ezinbestekoa zen ezkontuta egotea. Hala, enperadore izan nahi zuen printze batek ezkontzea erabaki eta emaztea aukeratzeko, lehia antolatu zuen gorteko emakumeen artean.

Haren jauregiko zerbitzari batek albistearen inguruko komentarioak entzun eta triste sentitu zen, bere alaba printzeaz maiteminduta zegoelako.

Etixeratutakoan, alabari entzundakoa kontatu zion. Hark lehian parte hartzea erabaki eta printzeak esandako egunean, jauregira joan zen. Bertan zeuden gorteko emakumerik ederrenak, arroparik eta bitxirik ederrenekin.

Orduan, desafioa bota zien printzeak: *“Bakoitzari hazi bana emango diot. Sei hilabete barru lorerik ederrena ekartzen didana aukeratuko dut nire emazte izateko”*.

Zerbitzariaren alabak hazia pazientziaz eta samurtasunez zaindu zuen arren, ez zen hazitik ezer sortu. Hala ere, neska zehaztutako egunean eta orduan joan zen jauregira, lorontzia hutsik zuela. Beste neskek, oster, lore bana zuten, zein baino zein ederrago. Printzeak, hautagai bakoitzaren lorontziari arretaz behatu ostean, zera esan zuen: *“lorontzia hutsik zuen neska izango da nire emaztea, bera izan baita enperatriza izatea merezi izateko moduko lorea erein duena: zintzotasunarena, alegia. Izan ere, antzuak ziren banatutako hazi guztiak”*.

GALDERAK

Zein da irakurri duzuen testuaren helburua?

Testuaren arabera, zergatik ezkondu behar zuen printzeak?

Testuaren arabera, nola aukeratu behar zuen printzeak bere emaztea?

Ebaluazioan, noski, zuen jarrera hartuko dut kontuan. Gogoan izan ikastetxearen web gunean dituzuela eskolako eta ikasgelako arauak.

Ikasgelako batzuk gogoraraziko dizkizuet orain, kontuan izan ditzazuen:

- A. Ikasle guztiek puntualtasunez egon behar dute gela barruan eskola hasi aurretik.
- B. Ikaslea berandu azaltzen bada, irakasleari baimena eskatuko dio gelan sartzeko eta atzerapenaren arrazoiaren berri emateko.
- C. Gela barruan, irakasleak toki bat esleituko dio ikasle bakoitzari. Inor ezin izango da tokiz aldatu irakaslearen baimenik gabe.

- D. Inor ezin izango da tokitik altxatu eskolan zehar, irakaslearen baimenik gabe.
- E. Gela barruko lan- eta arreta-giro egokia asaldatzen duten jokabideak saihestuko dira. Besteak beste, oihu egitea, hitz egitea, jatea, edatea eta gelan barrena batetik bestera ibiltzea.

Entzun duzue, Mikel eta Jon? Izan ere, atsoak ematen duzue, denbora guztian txutxumutxuka!!! Ixildu!!! Bestela, hurrengoan kalera zoazte!!!

Eta orain, lehenengo eguna denez, jolastera joango gara. Mutilak: hartu larruzko baloia eta zuek, neskak, tori plastikozkoa. Talde bakoitzean izandako irabazleak saria jasoko du.

Baina jolastu aurretik eta aurkezpenari amaiera emateko “Agur Jaunak” abestuko dugu.

HAUSNARKETA

- Parekidetasuna sustatzeko modukoa izan al da irakaslearen jokabidea?
- Zergatik?
- Parekidetasuna sustatu duela uste baduzue, nola egin du?
- Sexismoa transmititu duela uste baduzue, nola egin du?

IRUDIAK

GENERO-SISTEMA BITARRA

ARAUA		
SEXU BIOLOGIKOA	<i>ARRA</i>	<i>EMEA</i>
GENERO-IDENTITATEA	<i>GIZONA</i>	<i>EMAKUMEA</i>
GENERO-ADIERAZPENA	<i>MASCULINOA</i>	<i>FEMENINOA</i>
SEXU-ORIENTAZIOA	<i>HETEROSEXUALA</i>	<i>HETEROSEXUALA</i>

MINTZAIRAREN ERABILERA

- Mirentxu Artola.
- Andereñoa.
- Maskulino orokortzailea.
- Esaera.

ITXAROPENAK/TRATUA

- Mutilak indarra/neskak edertasuna.
- Mutilek kirola/neskek itxura.
- Mutilek mahaia mugitu/neskak dekoratu eta garbitu.
- Mutilek larruzko balioa/neskek plastikozkoa.

NAHITA EGITEN AL DITUGU HORRELA KOAK? EZ!!!

<https://www.youtube.com/watch?v=nWu44AqF0il>

BESTE BATZUK

- Irakaslearen rola.
- Segregazioa.
- Ikasgaiak.
- Edukiak eta nola eman.
- Ebaluazioa.
- Diziplina.
- Abestiak.
- Balioak.

ZER EGIN HORRELA KOAK EKIDITEKO? HEZKIDETZA SUSTATU.

ZER DA HEZKIDETZA?


Haien sexu biologikoa, sexu-identitatea, sexu-joera eta genero-adierazpena edozein izanda ere, pertsonak eskubide, aukera, tratu, betebeharrak itxaropen eta beste parekideak izatea helburu duen prozesu hezitzailea.

IKASGELAN EGITEN DUGUN GUZTIAREN AZTERKETA SAKONA

CURRICULUM FORMALA

1. Edukiak eta gaitasunak.
2. Horiek lantzeko modua.

Sistema bitarretik eta heteroarautik haratago



(Steilas sindikatuak 2015ean argitaratutako “*Genero eta aniztasun sexualerako gida*”tik hartutako irudia. https://issuu.com/stee-eilas/docs/genero_eta_aniztasun_sexualerako_gi/7)

IKASGELAN EGITEN DUGUN GUZTIAREN AZTERKETA SAKONA

CURRICULUM FORMALA

1. Edukiak eta gaitasunak.
2. Horiek lantzeko modua.
3. Irakaskuntza metodologia.
4. Ebaluazioa.
5. Hezkuntza-materialak.

IKASGELAN EGITEN DUGUN GUZTIAREN AZTERKETA SAKONA

CURRICULUM FORMALA

1. Edukiak eta gaitasunak.
2. Horiek lantzeko modua.
3. Irakaskuntza metodologia.
4. Ebaluazioa.
5. Hezkuntza-materialak.

EZKUTUKO CURRICULUMA

1. Apaingarriak, irudiak.
2. Diziiplina.

DIZIPLINA DEMOKRATIKOA

- Arauen premiaz kontzientziatu.
- Dauden arauak aztertu/berrikusi.
- Arauak eta ondorio hezigarriak proposatu.
- Horiek negoziatu.
- Araudi berria aplikatu eta jarraipena egin.

IKASGELAN EGITEN DUGUN GUZTIAREN AZTERKETA SAKONA

CURRICULUM FORMALA

1. Edukiak eta gaitasunak.
2. Horiek lantzeko modua.
3. Irakaskuntza metodologia.
4. Ebaluazioa.
5. Hezkuntza-materialak.

EZKUTUKO CURRICULUMA

1. Apaingarriak, irudiak.
2. Diziiplina.
3. Balioak.
4. Segregaziorik ez.
5. Itxaropenak eta tratua.

NOLA?

Aztertu ea zure
itxaropenak/tratua/
esanak/aukerak etab.
zeuk aukeratutakoak
ala genero-
estereotipoen
araberakoak diren.

ITZULGARRITASUNAREN ARAUA

IKASGELAN EGITEN DUGUN GUZTIAREN AZTERKETA SAKONA

CURRICULUM FORMALA

1. Edukiak eta gaitasunak.
2. Horiek lantzeko modua.
3. Irakaskuntza metodologia.
4. Ebaluazioa.
5. Hezkuntza-materialak.

EZKUTUKO CURRICULUMA

1. Apaingarriak, irudiak.
2. Diziiplina.
3. Balioak.
4. Segregaziorik ez.
5. Itxaropenak eta tratua.
6. Mintzairaren erabilera.

MINTZAIRAREN ERABILERA: EKIDIN

1. «Normatiboa da helduaroan semeak izatea».
2. «El hombre llegó a la luna en 1969».
3. «Egin ezak hire aukera!».
4. «Donald Trump bere emaztearekin joan da bozkatzera».
5. «Miren Alkiza Agirre andereñoa izan zen irabazlea».
6. «Bi suhiltzaile, bi arotz, apaiza eta hiru emakume zauritu ziren».
7. «Lehenengo aukeratua Jeanne Cuchet izan zen, 39 urteko emakume ederra».
8. «Atso-agure».
9. «Egungo gazteen artean ohikoak izaten dira kale-edana, nesketan ibiltzea eta antzeko jarduerak».
10. «Frantziako iraultzaren ondorioz, sufragio unibertsala ezarri zen».
11. «Ane Gorrotxategi naiz».
12. «Alua!».
13. «Oro gudura, ala! Bihar izan dadin Internazionale gizonaren adin».
14. «Jaun eta jabe»

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA



Reizabal, L.(2015):
*Genero-berdintasunean
hezteko gida familia,
irakasle eta bestelako
hezitzaileentzat.*
Bilbo: UEU eta EHU.

Salgai hemen: http://www.ueu.eus/denda/ikusi/genero_berdintasunean_hezteko_gida

LUIXA REIZABAL
ARRUABARRENA

- TELEFONOA:
943 015 720
- luixa.reizabal@ehu.eus

Eskerrik
asko!!!



Kredituak eta baimenak

Egilea: [Luixa Reizabal Arruabarrena](#)

Data: 2019ko Urriak 8.

Baimena: Creative Commons [Aitortu-PartekatuBerdin 3.0](#)

Oharra: material hau *Nahiko! programa 2019-2021. Hezkidetzari buruzko I jardunaldi orokorra* delakora joan diren pertsonen esku jartzen da Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 3.0 lizentziarekin. Lizentzia honekin edukia kopiatu, banatu eta erakutsi ahal izango dituzu, ondorengo baldintzak beteaz:

- Edukiaren jatorrizko egileak aipatu behar dituzu.
- Lanaren kopia zein banaketa askea da.
- Lan eratorriak, jatorrizko egiletza aitortzeaz gainera, baimen (lizentzia) berdina izan beharko du.